



I. Goikuria Aterpetxea - Sarria Araba

Inguruarekin Blai!

LH eta DBHko 1.zikloko ikasleentzat
zuzendutako hezkuntza programa




edefundazioa.org/hezkuntza-programak

EDE Fundazioa HEZKUNTZA-PROGRAMAK ATERPETXEETAN

Ikasleen curriculuma sendotzera bideratutako hezkuntza-programa anitzak eskaintzen ditugu, eta, hori bermatzeko, ikastetxeetatik zein hezkuntza-elkarteetatik datozen taldeen egonaldietarako orientatutako hainbat aterpetxe ditugu. Eskaintzen ditugun hezkuntza-programek honako ezaugarriak dituzte:

- **Euskalduna**, euskara gure proiektuaren hizkuntza nagusia izango da eta aterpetxean ematen den ahozko komunikazioan garrantzi handia izango du.
- **Ingurunean sustraitua**, proiektua burutzen den herriaren baliabideak kontutan hartuko dira.
- **Parte-hartzailea**, ikasleak izango dira esperientzia honen protagonistak eta hauen parte-hartze aktiboa sustatuko da.
- **Profesionala**, kalitatezko prozesuak ezarriko ditugu, beharrezko arreta bermatzeko eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

Aterpetxeak **Suspertu** enpresak kudeatzen du, EDE Fundazioaren laneratze-enpresa, eta hainbat instalazioren (ostalaritza, jatetxeak) kudeaketaren bidez, enplegarritasun-zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko lan egiten du.





Goikuria Aterpetxea

I. Goikuria aterpetxea Sarrian dago, Murgiatik 1,5 km-ra, Zuiako Koadrilan, hain zuzen ere. Bere kokapena zoragarria da, Gorbeia mendiko magalean dagoelako. Beraz, oso leku aparta da, hiriko zaratatik ihes egiteko.

Aterpetxean, 64 lagunentzako tokia dago. Beheko solairuan, jarduera- gela, jantokia, sukaldea eta bainugelak daude; lehen solairuan, logelak, bainugelak eta dutxak; eta bigarren solairuan, jarduera-gela.

Instalazioak eremu zabala du kanpoan, eta, mahaidun karpa, futbol-zelaia eta lorategia daude bertan.

Kokapena:

Sarria-Markina Errepidea 3 (Sarria) 01130 Zuia (Araba)



Natur gela programa

Eskolei zuzendutako **Ingurumen hezkuntzako** programa.
Zenbait gaitan dago zentratuta:

- Ingurumena.
- Kulturaren ezagutza.
- Euskararen erabilera dimentsio guztietan.
- Inguru honetako geografia eta historia.
- Inguru naturala ingurumenaren ikuspuntutik, eta bizimodua.
- Euskal mitologia.

Era berean, eskola-umeen beharriaz erantzuten die, euren garapen afektiboan, fisikoan eta harremanetan, ikasketa dibertigarri eta praktikoaren bitartez.



Helburuak

1. Gizakiak inguruan izandako agerpenak aztertzea, oreka ekologikoa babestu eta berreskuratzeko eta ondare kulturala kontserbatzeko.
2. Ingurumena ulertzeko, kontuan hartzea zenbait elementu (fisikoak, naturalak, sozialak eta kulturalak) elkarren arteko ekintzan aritzen direla, aldaketak sortuz. Era berean, kontuan hartu behar da elementu horiek arazoak sor ditzaketela ingurumenean, eta hori modu kritikoan aztertu behar da, konponbideak arduraz bilatuz.



Ekintzen plangintza

Egun pasa

10:00	Ongietorria Gorbeia parketxera irteera
13:30	Bazkaria (Etxetik ekarri behar da)
14:30	Jolas kooperatiboak naturan
16:00	Agurra

Eguraldiaren arabera ekintzen plangintzan aldatu daiteke.

Hezkuntza programaren arduraduna
Iratxe Santos Lagar - Tel. 688 647 396
hezkuntzaprogramak@edefundazioa.org



Ekintzen plangintza

Egun 2

	LEHENENGO EGUNA	BIGARREN EGUNA
10:00	Ongi etorria. Pista jolasa	Gorbeia parketxera irteera
13:00	Bazkaria	Bazkaria
14:00	Atsedenaldia	Atsedenaldia
16:00	Sarriako errekurtsoen bisita eta askaria Ezti museora bisita (Gazteleraez)	15:00 Agurra
20:00	Afaria	
21:00 22:00	Gaubela	

7

Eguraldiaren arabera ekintzen plangintzan aldatu daiteke.

Hezkuntza programaren arduraduna
Iratxe Santos Lagar - Tel. 688 647 396
hezkuntzaprogramak@edefundazioa.org

Ekintzen plangintza

Egun 3

	LEHENENGO EGUNA	BIGARREN EGUNA	HIRUGARREN EGUNA
10:00	Ongi etorria. Pista jolasa	Jolas kooperatiboak	Gorbeiaiko parketxera bisita
13:00	Bazkaria	Bazkaria	Bazkaria
14:00	Atsedenaaldia	Atsedenaaldia	Atsedenaaldia
16:00	Ezti museora bisita (Gaztelera)	Lurra konkistatu jolasa	15:00 Agurra
20:00	Afaria	Afaria	
21:00 22:00	Gaubela	Gaubela	

Eguraldiaren arabera ekintzen plangintzan aldatu daiteke.

Hezkuntza programaren arduraduna
Iratxe Santos Lagar - Tel. 688 647 396
hezkuntzaprogramak@edefundazioa.org



Ordutegiak

BEGIRALEEN ORDUTEGIA

- 10:00-13:00 Goizeko ekintzak
- 14:00-16:00 Jolastokia
- 16:00-20:00 Arratsaldeko ekintzak
- 21:00-22:00 Gaubela

IRAKASLEEN ORDUTEGIA

- 13:00-13:30 Jantokia prestatu ikasleekin.
- 13:30-14:00 Jantokia zaindu.
- 20:00-20:30 Jantokia prestatu ikasleekin.
- 20:30-21:00 Afaria zaindu.
- GAUEZ Gauez emergentzi telefono bat egongo da.

*Azken egunean eraikina 15:00tako utzi behar da.



Prezioak

Egun 1	22 € *
2 egun	70 € *
3 egun	126 € *

Kayak + Arku-tiroa edo Kayak + Orienting (Sobronen) 22,70€

Abentura Parkea + Zuhaitzetako Eskalada (Otxandion) 14€

3 €ko deskontua bazkaria/askariren bat kontratatu ezean.

* Irakasleak salbuetsita

Enpresa laguntzaileak





Harremanak *eta informazioa*



Arduraduna

Iratxe Santos Lagar

Telefonia


688 647 396

E-posta

hezkuntzaprogramak@edefundazioa.org

Web

edefundazioa.org/hezkuntza-programak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO